

noaua

Asteburu honetan, jai giroa
nagusi izango da Santuenean

Bertso afari musikatua
antolatzen dute Zubietan

Hastera doa Topa Eszenika

**Zinemaldian,
Zumeta ikusgai**






ESKOLA ITZULERARAKO
TXANDALAK ETA "LEGGINGS"-AK PREST!
*IAZKO NEGUKO DENDORALDIKO ARROPA 75€-TARA

KALE Nagusia 70 BEAIA, USURBIL

Herri osoak ikus zaitzala nahi duzu?

IPINI ZURE IRAGARKIA HEMEN

Kontsulta itzazu tarifak
www.noaua.com helbidean edota
 deitu 943 36 03 21 zenbakira

noaua

<http://www.noaua.com> Aldizkariko **"Gazi, gozo, geza"** atala
orain ere [noaua.com](http://www.noaua.com) web orrian



Etxebizitzak, garajeak, motorra,
lanpostuak, trukean...
Zure oharra Internet bidez igo
eta kontsulta dezakezu

www.noaua.com **MERKATU TXIKIA**

noaua usurbildarren zerbitzura

Albisteak iruditan

8.000 globo prest, Santueneko guda handirako

Hitzordua finkatua dago, ostiral honetan, 17:00etako txupinazoaren ostean, Santuenean. Jaurtigaiek ere prest behar dute honez gero. Ekitaldian parte hartuko dutenak gogotsu gerturatuko dira, ziur, auzoko jaietako guda handira; globo gerrara. Bakoitza bere posizioan jarri eta erasoan hastea baino ez da falta. 8.000 globo, ez gehiago ez gutxiago, prestatzen aritu da egunotan Santuenean, iruditan duzuen lagun taldea. Ostiral arratsaldean, ederki blaituko da bat baino gehiago.

Eta despistaturen bat baldin badabil Santueneatik, hoberena euritakoa, xira, aterkia... eskura izatea. Goitik behera busti eta berandu izan baino lehen.



Argazkiak daudenak prest dira ostiral honetan Santuenean egingo den globo festarako.

Laburrean

1955eko kinto afaria

Ohiturari jarraituz, aurten ere urriaren hirugarren larunbatean, urriak 19, 1955ean jaiotako usurbildarrek eta Usurbilen bizi direnek kinto afaria ospatuko dute. "Antxeta Jatetxean, afori eder batekin solasaldi eder bat edukitzeko. Batzuk maiz ikusten garenak, baina baita urtean behin elkartzeko garenak ere". Bertaratu nahi duenak, izena emateko bi aukera ditu. Batetik posta bidez: 1955usurbil@gmail.com

Bestetik, Patxi Arrutiren telefono zenbakira deia eginez edo mezua luzatuz: 615 760 458.

Lapurretak azken aldian

Iragan larunbat goizaldean gertatu zen. Diruabakarrikeraman dute, jatetxetik adierazi dutenez. Hala ere, lehenagotik antzeko egoerak bizitakoak dira Artzabalen. Hirutan lapurtu eta beste bitan gauza bera egiten saiatu dira, azken urte eta erdian. Ez da lapurreta bakarra izan. Puntapax kaleko beste taberna batean ere gauza bera egiten ahalegindu ziren abuztu amaieran. Orduko hartan, bi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak. Eta abuztuaren 1ean, Kaxkoko saltoki bateko beira hautsi, barrura sartu eta lapurreta egin zuten baita.

Erakusketa Artzabalen

Donostia suntsitu zuteneko bigarren mendeurrena bete berri den honetan, gaur egun eza gutzen dugun hiriburua berreraikitzen hasi eta 100 urtera ateratzeko argazkiak ikusgai jarri dituzte Artzabalen.

1905-1915 urte artean, Julian Alonsok ateratako irudi bilduma urriaren 31rarte ikusi ahal izango da aipatu jatetxean. Mendeurrenaren harira, "herri lan ugari egin ziren eta argazki gehienek garaiko aldaketak islatzen dituzte", aditzera eman digutenez.

noqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noqua.com /// www.noqua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubidea.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noqua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noqua.com:
Imanol Ubidea, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketak: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

Penarik ematen ez duten gaixoak

Urduria izan behar du, derri-gorreetan. Urduria, xehetasu-nen zalea, gauzak muturre-ra eraman zalea. Bularretik hasita, eztarrian gora doan ke zutabe bat imajinatzen dut nik haren barnean, buruan sekulako presioa egiten dio-na. Noski, ke horrek bidea aurkitzen du noizean behin, eta ateratzen has-ten denean, akabo! Heldu kulero eta galtzontziloak, badator-eta Urkijo azken paranoiarekin! Euskal Herrian jaiotzea, hori haren kondena: haren izaera eta sorterrria, a ze koktela!

Ez dakit haren bihotzak nola jasan dezakeen hori. Nola joan daitekeen kaletik lasai. Eta ez diot hori aparteko arrazoiaren batengatik, ez. Izan ere, Urkijok ere ez du behar aparteko arrazoirik lan egiteko, edo bestela esan-da, jendea mintzeko, nazkatzeko, aspertzeko, eta eztaikit zenbat gau-

za gehiagotarako. Zera esan nahi dut, hain gutxi behar du Urkijo jaunak bere barne alarma hori martxan jartze-ko... Edozer gauzak, edozerrek, asal-da dezake EAEn Espainiako Gobernuak duen ordezkari gaixoa, eta guz-tiarekin asaldatzen bada, guztia-rekin iraindua sentitzen bada, bene-tan bihotz gogorra behar du izan Urki-jok barruan, ahula balu, honez gero bihotzekoak emanda egongo litza-tekeelako. Imajinatu, kaletik doala, euskaraz idatzitako kartelen bat ikus-ten duen bakoitzean sentitu behar duen hotzikara...

Udan Laudioko eta Bilboko feste-kin entretenitu zen gizona. Jaiak ez direla politizatu behar aldarrikatzen dute etengabe, eta hara non agertu zen Urkijo jauna, bakean zegoena nahastera. Aurreko egun eta ordue-tako tentsio guztia pasata, berezia

izan zen Marijaiaren etorrera Bilbon: Iraia Iturregiren hitzak lehenengo, eta txupina botatzeko modua gero. Itu-rregik, Jone Artola txupinerarekin elkartasunez, pregoilari jantzia eran-tzi zuen Arriagako balkoian: jaiak kutsatu nahi zituen Urkijori mutu-rrean emateko modu ederra izan zen hura!

Orain Pirritx, Porrotx eta Marimo-totsen aurka agertu da gizona. Eta hain da absurdoa... Pirritx eta Porro-txekin erreportaje bat egin nuen iaz, 25 urte bete baitzituzten pailazo bezala. Adina tarteko, tartegutxi dute hiru pailazoen nire egunerokoan, eta egun hartan beraiekin ordu eta erdiz egon ostean, izugarri poztu nintzen Euskal Herriko haurrak hezteko ardu-ra hartu zutelako eta horretan jarrai-tzen dutelako. Harro egoteko modu-ko pailazoak dira; izango ez dira ba

gizartearen gorabeherak, gazi eta gozoak kantuz, ipuinen bidez eta hain umoretsu haurrei erakusten dizkie-ten pailazoak? Baina ez, Urkijok ez du hala uste eta ETBri eskatu dio haien saiorik ez emateko bere telebista kateetan. Zoratu al gara edo?

Ondorio bat atera dut: Urkijo gai-xoa! Infernua bizitzea bezalakoa izango da harentzat Euskal Herrian bizitzea. Gaixoa Urkijo? Bai, gaixoa: leku guztietan mehatxuak ikusten dituen horrek derrigor egon behar du gaixo. Ez da ohiko gaixoa, bai-na, penarik ematen ez duten gaixo horietako bat baita Urkijo jauna. Edo agian ez, agian emozioak atsegin ditu, eta absurdoan sakontzea gus-tatzen zaio, besterik gabe, bizitzari saltsa pixka bat jartzeko, jendea amorrarazteko, edo izorratzeko soi-lik! Nik zer dakit...

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Maialen Unanue** | Luis Aranalde | Unai Agirre | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

Zubilan, lan mundurako orientatu eta prestatzeko

Lan munduari loturiko orientazioa, informa-zioa edota prestakun-tza tailerrak eskain-zen dituen egoitza berria martxan jartze- ra da Buruntzaldean; Zubilan Enplegu Zentrua. Lasarte-Orian kokatu dute egoitza berria, Kale Nagusia 56an. Herritar ororen-tzat zabalik izango ditu ateak, eta zerbitzuok eskainiko ditu:

- Orientazio zerbitzua: lan bila-ketan edota prestakuntza edo ikasketekin erlazioz atutako aholkularitza zerbitzua.
- Ordenagailuak eskura erabili-tzaileentzako (6 ordenagai-lu eta inpresora); ordenagai-lu bakoitzak lana bilatzeko web orriak, kurrikulum eta aurkezpen gutun lagin ezber-dinak... eskuragarri izango ditu.
- Lan eta prestakuntzari buruz-ko liburuak, aldizkariak,



Sustapen ekonomikorako eta enplegurako eskualde mailako lankidetzaren protokolo orokorra sinatu zuten iaz Buruntzaldeko udaletako ordezkariak.

fitxak...

- Lan eta prestakuntza tabloia: bertan, astero ateratzen diren lan eskaintzak eta ikastaroak paperean zintzilikatuta izan-go dira, eta baita edozein infor-mazio esanguratsu ere... (Lan eskaintzak ez dira bakarrik Lanbidekoak izango, baizik eta iturri ezberdinetakoak).

- Prentsa (egunkariak-lan eskaintza, bekak, diru lagun-tzak).

- Iradokizunen postontzia.
- Ekintza bereziak: dokumen-talak, tailerrak...

TAILERRAK

Lehen tailerrak ere lotu dituz-te. Datak ordea ez dituzte fin-

katu, herritarrak izena eman zain daude. Hona hemen, gauzatzea aurreikusi dituzten saioak:

- Autokandidatura 2.0 (1. mai-la).
- Autokandidatura 2.0 (2. mai-la).
- Lan bilaketa 2.0.
- Prestakuntza bilaketa 2.0.
- Gizarte sareak eta lan bilake-tan duten garrantzia.
- Aurkezpen gutunen eta kurri-kulumaren joera berriak eza-gutu.

EGOITZA

Aipatu moduan, Buruntzaldea osoan egoitza bakarra izango du Zubilanek, Lasarte-Oriako Kale Nagusia 56an, 1. solai-ruan.

Gunea egokitze azken prestaketa lanetan murgilduta dabilta egunotan, arduradu-nek berri eman dutenez.

Bertso afari musikatua larunbatean, Zubietan



Jokin Uranga (argazkian), Iñaki Gurrutxaga, Iñigo "Mantxi" eta Arkaitz "Xamoa" lauok teak parte hartuko du Zubietan Lantzenek larunbat honetarako, irailaren 21erako, 21:00etan Barazar jatetxean antolaturiko ekimenaren baitan. Gai jartzaile lanetan, Oier Kasabal arituko da. Eta haiekin guztiekin, bi musikari; Ixak Arruti kitararekin arituko da, eta Gari biolinarekin. Afaritarako menua ezin erakargarriagoa; legatz pastela (haurrek: espagetiak tomatearekin); entsalada mixta; erredondoa saltsan; flana izozkiarekin; kafea; urteko ardoa, sagardoa eta ura. Oraindik bertso afari musikaturako txartela lortu ez duenak, mugitu beharko du, 40 lagunentzako lekua dago eta soilik. Txartelak salgai daude Baraza-

rreren; helduenak 20 euro, haurrenak 10.

Asier Azpiroz, 2013ko Lizardi Saria

Zarauzko Lizardi Saria irabazi du Asier Azpiroz zubietarrak. Irailaren 6an Modelo aretoan ospatu zen finalean, lehiakide izan zituen; Eneritz Artetxe (Azkoitia), Amaia Iturriotz (Urretxu), Ane Labaka (Lasarte-Oria), Gemma Urteaga (Beasain), eta Oier Aizpurua (Zarautz). Bigarren, Oier Aizpurua zaraustarra sailkatu zen, eta bertso onenaren saria ere jaso zuen. Sari ugari jasotzen ari da Azpiroz azken aldian. Santixabeletako Bertso-paper Lehiaketa ere berak irabazi zuen, baita urtarrian Donostiako Doka kafe antzokian ospaturiko Mikel Laboa txapelketa ere.

Gaztelekuak, bi hilabeteka antolatu du ikasturtea

Bi hilabeteko gai baten inguruko lanketa burutuko dute. Gaien hautaketa, gazteen interesak kontuan hartuz egin da, "eta gazteak burutuko diren ekinzten inguruan proposamenak egin ditzaizkete". Hauexek dira jorratuko dituzten gaiak: Iraila-urria: "Gorputza zaindu maitatu: Mens sana in corpore sano". Azaroa-abendua: "Euskal Herria munduan: Txapel buruan ibili munduan". Urtarrila-otsaila: "Neska mutilak berdintasunean: puntu lila". Martxoa-apirila: "Zuk zeuk egin dezakezu: "DIY Do It Yourself".

Maiatza-ekaina: "Musika: Musikazblai".

Uztaila: "Udabentura".

Berrikuntzak berrikuntza, Gaztelekuak ohiko ordutegia izango du aurten ere:

■ Astelehenetan:

16:30-18:00 DBH 3-4 eta Batxilergoa.

18:00-19:30 Denak.

■ Ostegunetan:

16:30-18:00 DBH 2. 18:00-19:30 Denak.

■ Larunbatetan:

16:00-17:30 DBH 1.

17:30-19:00 Denak.

Argibide gehiago: gaztelekua@usurbil.net

Deialdiak

Ikastaroa, Hitz Ahoren eskutik

Joxe Amiaa psikopedagogoak bideratuko duen "Nerabezaroa eta elkarbizitza" eta Nerea Mendizabal psikopedagogo eta haur masajeko orientatzaileak gidatuko duen "Guraso izaten ikasten: haurrekin batera hazi eta hezitzen" izeneko ikastaroak antolatu ditu Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarateak. Nerabezaroari loturikoa, LH 5-6 eta DBHko ikasleen gurasoei zuzendua egongo da. Beste ikastaroa, 0-6 eta LH 1-4 maila arteko ikasleen gurasoei. Saioak urritik maiatzera luzatuko dira. Izen ematea irekita dago, kurtsohitzaho@udarregi.com helbidean. Parte hartzailean izen abizenak eta haurarenak zehaztu behar dira email bidez. Horrekin batera, ikasturte osoaren truke, 30 euroko ordainketa egin beharko da, kontu korronte zenbaki honetan; 3035 014033 1400024098.

Emakumeen ahalduztze ikastaro berria

Urriaren 2ra arte irekita jarraituko du, eraginkortasunez komunikatzen ikasteko Udaleko Parekidetasun Sailak antolatu duen doako ikastaro berri honetan izena emateko epeak. Apuntatzeko: 943 377 110 edo parekidetasuna@usurbil.net. Ikastaroa Pepa Bojo psikologoak bideratuko du urritik aurrera, yoga klaseak ematen diren lekuean.

EPA-HHI ikastaroak

Helduen formakuntza saioetan matrikulatzeko epeak zabalik jarraitzen du. Ordutegi honetan, Agerialden: astelehenetik ostiralera, 11:00-13:00 artean. Astelehenetik ostegunera, baita 17:00etatik 19:00etara ere. Oinarrizko prestakuntza, unibertsitate eta goi mailako zikloetarako sarbide proben prestaketa, etorkinentzako programa, programa irekiak, ekintza osagarriak, ingeleseko mintzapraktika saioak... 18 urtetik gorako herritarrek, doako eskaintza zabaldu aurki dezakete Agerialden.

Antzerki klaseak

Ixabel Agirresaroberekin antzerkia egiten ikasteko aukera dago. Interesatuak deitu 675 712 383 edo email bat idatzi ixabel.agirresarobe@gmail.com

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

**Zuen
publizitatea
hemen**

☎ 943 360 321
publizitatea@noaia.com

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

Sari

Urte batzuk badira pipermina landatzen zen lurretan "Makala" zuhaitzak landatu zirela eta galantak hazi ziren, oso lur aberatsa baita Sari erriberakoa. Ikusi besterik ez dago, lehen eta orain. Familia lur horretatik bizi da. Orain zuhaitza gehienak bota eta putzu-zulo ugari egiten ari dira txori eta hegaztientzat. Neure galdera behar bada ez-jakina izango da, baina posible da gauden krisi garaian, murrizketak egiten ari dira, asko eta asko daude jatekorik ez dutenak, langabezia, etxebizitza ordaindu ezinik, hiru otordu egiten ez duten haur asko, jende heldua zaintzeko laguntzak gutxitzen... Eta non daude gure "baloreak", txoriei kasu eginez pertsonen baino gehiago?

Gaiez aldatuz, San Praixku jaiak gainean ditugu. Lerro hauetatik, deialdia egin nahi diot Aginagako herriari leiho eta balkoietan zapi urdinak jar ditzan, festa giroan. Antolatzailerik eskerrik beroena egiten duten lanagatik, ez baita erraza denon gustukoak izatea. Baina saiatzen dira, eta ez da gutxi. Mila esker denei, eta ondo pasatzeko aukera izan dezagula. Gora San Praixkuak eta agiñarrak!



KALEBERRI

MADDI ZALDUA

Beste konturik ez

Krisialdian denbora luze doakigu jada, eta gutxi batzuk baikor agertzen badira ere, gehiengoaren ezkortasuna da garaile. Egoera honetan, lapurreten afera ahoz aho dabilkigu azken aldian. Lapurretak nagusitzen ari dira gure inguruetan; 2013. urteko lehen lau hilekoan, esaterako, %6 igo dira lapurreta bortitzak Euskal Autonomia Erkidegoan.

Ez dakit krisia den arrazoi nagusia, baina izango du eragin handirik horietan guztietan, ziur. Larunbat goizaldean, esnatzerako, banuen bezperan herrian gertatutako azken lapurretaren berri. Azken aldian, zoritarrez, ez da beste konturik gure artean. Okindegira joan eta bizilagunekin topatzerako, auzoan izandako lapurretak gora eta behera. Lagun artean, bazkal osteko kafea hartzeko elkartzean ere, larunbatetan afaltzen izaten garen tabernan gertatutako lapurreta izaten da hizpide nagusia.

Beldurgarria bihurtzen ari da egoera. Ezin ukatu daiteke bizi dugun garaiazen zailtasun eta gordintasuna; gogorra da, baina lapurreta horiek guztiak salatu egin behar dira, ez baita soluzio-bide, eta horretarako baliatzen ditut nik ere lerro hauek.



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Ezohikoak

Kotxe ingeles bat, alboan bizikleta zaindaria duela, Zubietako kale bazter batean aparkatuta, udara pasatzen. Ingurukoon irudimena bor-bor.

Abuztuan Almandegi itxita, "hasta el 5 de septiembre", abuztuko herri-zaindarien kalterako, iraileko kale-giroaren onerako.

Musika-kontzertua Santio elizan, ganbera-musika Zubietan, txistua, biola, gitarra barrokua eta pianoforte ekarri ditu gurera Musika Hamabos-taldiak. Kontzertua Zubietan, ia zubietarrik ez kontzertuan.

200. urtemuga Donostiak, Zubietan birsortua, etorri dira Aizpurua ederrera traje, gorbata eta kapelak. Txalapartak egin die dei agintariei eta Donostia birsortzen hasi zirenen ondorengoei, txistu soinuekin sartu dira zubietarrak, donostiarrak eta gobernadore militarra! Harpak gidatu du ekitaldi solemnea, harpa eta dotorezia Zubietan. Donostiako agintarien eskertza-hitzak Zubietari eta errespetuzko promes-hitzak zubietarrentzat. Idatzita geratu dira. Bete bitez.

Ezohiko irudiak gurean, haize berria Zubietan.



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Auzoko jaiak

Batzutan auzoko kronika idaztea ez da erraza izaten, berri nabarmenik ez dagoenean adibidez, eta orduan zer kontatu ez da jakiten, baina oraingoan zorionez ez da horrela. Batetik auzoko jaiak ditugulako asteburu honetan, eta bestetik, eskubaloia 50. urtemuga ospatzen delako. Jaiak egitarau dotorea dakarte, kontzertu potente eta guzti. Aspaldian izan genituen EH Sukarra Santuenean, eta orain berriro ere bueltan gure artean, gainera telonero moduan Artobixar taldekoak, bi talde indartsu ostiralerako. Baina jendeak kalean esaten duena da, nola eskubaloia 50. urtemuga eta jaiak asteburu berdinean ospatzen diren, jakinda zer izan den Santuenea eskubaloia 50. urtemuga eta alderantziz.

Egongo da arrazoiaren bat, baina kanpotik ikusita, pena da hori horrela gertatzea. Urtetan izan dugu lotura eskubaloiarekin, gure garaiko haur guztiak pasatzen ginen hortik, eta batek baino gehiagok pena izango du, ze bi tokietan ezin egon, edo auzoko jaietan, edo urtemuga ospatzen, hainbat partida eta bazkarirekin. Zer egingo dugu ba? Ahal den ondoen pasa eza-zue zaudeten lekuan, baita Baxurde Krosean ateratzen bazarete ere!

Erronka, elebakartasunarekin amaitzea

BURUNTZALDEKO EUSKALTEGIEK ERE HASI DUTE IKASTURTE BERRIA; MATRIKULAZIOA ZABALIK DA

Elebakarrik ez egotea, eta elebakar izateari utzi nahi dion orok behar besteko aukera izatea eskura. Erronka honen bueltan hasiko dute ikasturte berri hau ere, Buruntzaldeko euskaltegiek. Aurreko astean aurkeztu zuten sasoi berrirako matrikulazio kanpaina Andoainen, bailarako euskaltegieta eta udal ordezkariak bildu zituen ekitaldian. Haien artean zen, euskara hobetzeko lanetan diharduen Mikel Pernia andoaindarra. Prentsaurrekoan euskaltegian zergatik matrikulatu zen azaldu zuen. Bere bizitzako hainbat urte Bizkaia aldean eman ostean, sorterrira, Andoainera itzuli eta jabetu zen, hizkuntza bat ahotan ez hartzeak duen galeraz.

laxtik euskaltegian da euskara maila hobetzen. Bere bigarren ikasturteari gustura, gogotsu ekitekoa da Mikel, iragan asteko ekitaldian azaldu zuenez. Helburu argia du, euskara maila hobetu nahi du, euskara gehiagotan erabili ahal izateko. Bere lekukotzarekin batera, prentsaurrekoan parte hartu zuten euskaltegieta eta udal ordezkariak ere ildo beretik, animu, indar eta gogo guztia helarazi zieten, euskara ez dakitenek ikasten hasi eta euskaltegieta matrikulatzera hurbildu daitezela. Irekia baitago, izen ematea.

Informazio osoa, Buruntzaldeko web orrialdean

Buruntzaldeko udalerrietan euskara ikasteko dagoen eskaintza guztiaren berri jasotzeko aukera dago, euskara.buruntzaldea.org/ atarian. Web orrialde honetan, "Euskara ikasi" izeneko atalean, norberak duen euskara maila eza-gutzeko testak egin ditzake. Baita herriz herri dagoen ikastaro eskaintza kontsultatu ere; udalerri, edota mailaren arabera, non ze ikastaro dagoen jakin daiteke. Eta ikastaro bakoitzean plazarik geratzen ote den ere, horren berri izan dezake Buruntzaldea Euskaraz web orrialdera sartzen denak. Udalerrri bakoitzeko



Aurreko astean prentsaurrekoa eskaini zuten Buruntzaldeko euskaltegiek.

euskaltegiekin hartu emanetan nola jarri ere, datuok jasotzen ditu aipatu atariak. Baita, euskara ikastera doanak zer nolako diru-laguntzak eska ditzakeen.

Eskaintza zabala Etumetan

Udalerri, Usurbilgo kasuan, 1, 2 eta 3. mailari loturiko ikastaro bana programatu du Etumeta AEK euskaltegiak, urriaren 1ean abiatuko duen 2013-2014 ikasturterako. Perfilak eta EGA, alfabetatzea, autoikaskuntza, mintzalguna egitasmoa... Euskara ikasteko eskaintza zabala dago Usurbilen. Orduetegi honetan eskainiko dituzte ikastarook:

1B maila

Astelehenetik ostegunera, 20:00-22:00 artean.

2 maila

Astelehenetik ostegunera, 9:00-11:30 artean.

3 maila

Astearte, asteazken eta ostegunetan: arratsaldeko 17:30-20:00 artean.

deko 17:30-20:00 artean.

Autoikaskuntza

190 lan ordu etxean. Astero tutoretza saioak, eta bi orduko mintzapraktika saioa euskaltegian.

Mintzapraktika

Astean behin.

Matrikulazioa

Etumeta AEK euskaltegiko eskaintzan matrikulatu nahi duenak, haxe du izen emateko ordutegia:

■ Astelehenetik ostiralera: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

Informazio gehiago:

■ Telefono zenbakia: 607 609 379.

■ E-posta: usurbil@ae.org

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAUZIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

Goazen euskaltegira!

Belen, Julian eta Lourdes ikasgelara itzultzeko gogotsu dira jada. Udako oporraldia atzean utzi, eta euskara ahotan hartu nahi dute berriz. Oraindik zertxobait itxaron beharko dute ondoko argazkian ageri diren, Rosa, Olatz eta Iker irakasleekin, baita gainerako ikaskideekin topo egiteko. Urriaren 1ean abiatuko baita ikasturte berria, Etumeta AEK euskaltegian. 2013-2014 sasoi berrirako matrikulazio epea zabalik dago. Izena ematera animatzen dute jarraian elkarriketatu ditugun hiru ikasleok. Euskara ikasten hasteak ingurukoeko harremanak euskaldundu edota jende berria ezagutzeko aukera eman baitie hirurei, lerrootan azaltzen dutenez. Orain arte eginiko bidearekin pozik dira hirurak eta hasitako bide horri jarraipena eman asmo diote urritik aurrera.



Euskaltegiko irakasleak, Etumeta atarian.

1-Nolatan animatu zinen euskara ikastera?

2-Euskara ikasten hasteak ze onura ekarri dizu? Eta bidean, ze zailtasun izan dituzu?

3-Euskara zertarako ikasi?

4-Matrikulazio epea irekita dago. Animatu ez dakienari, euskara ikastera.



**Julian
Godinez**

1. laz hasi nintzen ikasten. Orain langabezian nago, datorren urtean jubilatuko naiz eta euskara ikasteko denbora gehiago dut. Emaztea usurbildarra da eta alabak baita. Biloba dut, eta bera-ekin euskaraz hitz egiteko, dakidana baino gehiago ikasi nahi nuen. Euskara gustuko dudana hizkuntza da.

2. Neuretzat entzutea da zailena. Erraza da hitz egitea niretzat, baina entzutean zailtasuna dut. Nire belarria ohitu gabe dago. Onuren artean, euskaltegian giro ona izan dugu.

3. Baratzat dut. Jendea baratzat ondok pasatzen denean, askotan galderak egiten dizkirate euskaraz. Lotsa ematen dit, esaten diet ulertzen dudala pixka bat baina erdaraz hobeto moldatzen naizela. Horregatik niretzat garrantzitsue- na, senideekin, bilobekin eta herritarrekin euskaraz hitz egin ahal izatea da.

4. Euskara gure hizkuntza da. Hemen, Euskal Herrian bertako hizkuntza hitz egin behar dela uste dut. Usurbil herri euskalduna da, euskara da hemengo hizkuntza, eta hau da jakin behar dena.



**Belen
Palacios**

1. Beti euskara ikasi nahi nuen, baina lanagatik ez nuen denborarik. laz langabezian geratu nintzen eta nire momentua zela pentsatu nuen. Lasarten hasi nintzen eta gero, Usurbilen.

2. Asko ikasi dut. Lehenengo urtean, euskara ikasten hastean mundu guztiak asko nabaritzen dela dio. Nik behintzat asko nabaritu dut. Hasi nintzenetik ekainera arte, asko aurreratu dut. Kostatu arren, euskara askoz gehiago erabiltzen dut.

3. Lehen mailako perfila atera dut. Neure hurrengo helburua bigarrena ateratzea da. Gero ikusiko dugu. Denbora baldin badut jarraituko dut, oso pozik bainago. Baina hori neure lan egoeraren arabera izango da. Halere, euskara bizi osoan ikasten jarraituko dudala suposatzen dut.

4. Euskaraz ez jakitea, galera da. Lehen ez nuen irakurtzen NOAUA, edo egunkaria. Orain irakurtzen dut, gauza batzuk dakizkit, lehen ez nekizkienak. Gure ikuspegia zabaltzen du eta jende askorekin harremana izateko aukera ematen du. Ni oso pozik nago. Eta neure umeekin geroz eta gehiago hitz egiten dut euskaraz.



**Lourdes
Miras**

1. Orain dela urte piloa, institutuan euskaltegira joan nintzen. Gero unibertsitatean utzi nuen. Lasarten bizi nintzen, orain Usurbilen desberdina da. Motibazio handia neukan euskara ikastera bueltatzeko. Hizkuntza ikastea gustukoa dut. Gainera iazko euskaltegiko taldea oso ona zen, oso jatorra. Piloa aurreratu nuen eta motibazio gehiagorekin jarraitzeko asmoz nago.

2. Zailena, euskaltegitik kanpora ez dudala euskal giroa, jende desberdina euskaraz hitz egiteko. Bestalde, besteek zuregatik bakarrik hizkuntzaz aldatu behar dute? Hori lotsa handia zen niretzat. Guk egin behar dugu egokitzekeko esfortzu hori, ez besteek. Egun oraindik ezin dut ondo hitz egin, baina jada ulertzeko moduan bai.

3. Mintzalagun batekin, jende berria ezagutu eta kafe edo garagardo baten bueltan, lotsarik gabe hitz egin eta entzuteko aukera dugu. Aurretik segitzea espero dut baita.

4. Oso polita da aldizkariak euskaraz irakurri, jendea ulertu eta entzun ahal izatea. Gainera, zurekin hitz egin nahi badute, ez dute hizkuntzaz aldatu behar.

'Izenik gabe, 200x133'

JOSE LUIS ZUMETA MARGOLARIAREN SORTZE PROZESUA AZALTZEN DUEN DOKUMENTALA

Izenik gabe, 200x133 dokumentalak Jose Luis Zumeta modu eder batean ezagutzeko aukera eskaintzen du: lanean ageri da, margoen artean. Bere munduan ageri da, eta bere mundutik ari zaigu. Monika Zumetak eta Enara Goikoetxeak zuzendu duten lan honetan, artistaren lan metodologia naturaltasun osoz islatzen da.

Jose Luis Zumeta margolariak desorduetan lan egiten du bere tallerrean, Nafarroako Arribe herrian kokatuta dagoen antzinako autobus geltokian. Oraingo honetan, 200x133 tamaina izango duten bi margolanekin ari da lanean. Ondoren, Donostiako suhiltzaileen geltokia izandako eraikinean erakusgai egongo dira lanok. Bi margolan hauen sortze prozesua da dokumental honen bizkarrezurra.

Lehenengo aldiz eta kameraren aurrean, bere barneko eta bakarra duen sortze prozesua azalduko du margolariak. Grabazio taldearen jarraipena erabatekoa da: Zumetak mihisea eraikitzen duenean hasten da, obren garapena jarraitzen du eta ondorengo erakusketarekin amaitzen da.

Baina Zumetaren gertuko lagunek ere garrantzia handia



"Dokumentalak bi obren garapena jarraitzen du eta ondorengo erakusketarekin amaitzen da"

Ostiral honetan hasiko da Donostiako Zinemaldia eta Zinemira sailean emango dute.

dute dokumentalean.

Hauek emandako erantzunen bitartez ezagutuko ditugu Zumetaren berezitasunak, margolariaren ibilbidearen klabeak, bere garapena, eta orokorrean, Zumeta artista handiaren baitan dauden atal guztiak.

200X133 ERAKUSKETA

Dokumentala grabatu bitartean, Zumetaren margolanak Donostiako suhiltzaileen eraikin ohian egin zen erakusketan egon ziren ikusgai. Zumetak bere sortze-gaitasuna hainbat modutara garatu du eta horren

erakusgarri izan ziren erakusketak honetan aurrez aurre ikusgai egon ziren elementuak: alde batetik, erakusketarako espresuki egin zituen bi arte-lan, eta bestalde, horiek sortzeko prozesuan dokumentalera-ko grabatu ziren irudiak.

Horrez gain, Zumetak bere bi bilobekin batera horma-irudi bat landu zuen eta azken boladan erabiltzen ari den teknika berriaren emaitza ere ikusgai egon zen: iPadarekin egin dituen 500 irudi inguru. Erakusketak hura nahiz jendearen erantzuna dokumentalaren parte dira.

200X133 DOKUMENTALA ZINEMALDIAN IKUSGAI

Irailak 23 astelehena

Arratsaldeko 16:00etan Principe, 9 aretoan Donostian. Mundu mailako estreinaldia.

Irailak 24 asteartea

Iluntzeko 20:45ean Trueba, 2 aretoan Donostian.

Irailak 25 asteazkena

Arratsaldeko 19:30ean Antiguo Berri, 8 aretoan Donostian.

* Hiru sesioak jatorrizko bertsoan, azpitituluak ingelesez eta elektronikoak gaztelaniaz.

Egungo euskal artista esanguratsuenetakoa

Jose Luis Zumeta, gerra ondorengo euskal artista esanguratsuenetarikotzat jo da. Bere lanak Euskal Herriko museo garrantzitsuetan ikus daitezke: Bilboko Arte Eder Museoan, Donostiako San Telmo museoan eta Gasteizko Artiumen. Baita atzerrian ere, Museo de la Concordia, Santiago

de Chilen esaterako.

Arte modernoan aitzindari

Atzean gelditu dira Gráficas Valverden egindako hastapenak, 60ko hamarkadako Paris bohemio bategi jasotako eragina eta Gaur, Gipuzkoako artisten taldean bitzitakoak. Belaunaldi jakin bateko erreferen-

tea dugu Zumeta, Euskal Herrian arte modernoarekin harremanak izan zituen lehenetarikoa. "Gure kulturara norabide berriak ekarri zituen haietako bat izanik, herri honen nortasuna eraikitzen lagunduko digun dokumentua izan nahi du dokumental honek", sustatzaileek aditzera eman dutenez.




Usurbilgo eta Donostiako udalen laguntza jaso du dokumentalak.

Euskarak, atari eraberritua Buruntzaldean

Bailarako euskaltegiek matrikulazio kanpainan martxan dutela, Martin Ugalde XVII.

Ipuin Lehiaketan parte hartze-ko epea irekia dagoela, hauek azken egunotan Buruntzaldea Euskaraz web orrialdean sartu eta aurki dezakeguna. Baita non zer dagoen ere. Herriz herri, egun bakoitzean edota ekitaldi motaren arabera, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen deitu diren hitzorduen berri jaso daiteke. Musika emaldiak, hitzaldiak, jaiak, txapelketak, erakusketak, ikuskitzuna, ikastaroak... Aipatu sei udalerriotako ekitaldi eskaintza klik batera dugu, Buruntzaldea Euskaraz atarian. Esku eskura baita, euskarari loturiko diru-laguntzen informazioa, euskara ikasteko bailaran dagoen eskaintza, merkataritza edota ostalaritza alorrek euskalduntzeko materiala eskatzeko aukera, hartzaile ezberdinei zuzenduriko euskara sustatzeko baliabideak... Hori eta gehiago eskaintzen du egun.

2008an jarri zuten martxan web orrialdea, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek elkarlanean. Ordutik eduki desberdinekin hornitzen joan



Atariko atalak ere berrantolatu dituzte.

dira gunea; udalok euskara sustatzeko martxan jarritako kanpaina eta egitasmoekin esaterako. Baina teknologi berriak abiada batean aldatzen doaz, gaur nobedadea duguna, bihar zaharkitua geratu liteke. "Buruntzaldea Euskaraz" atariak bost urte bete ditu jada, eta goitik beherako errepasoa eman diote egitasmo honen bultzatzaileek. Itxuraz berritu dute, baita eduki aldetik ere. Web orriak eskaintako arlo anitzetako informazioa berrantolatu dute, helburu nagusi batekin, "bisitari bakoitzak aurkitu nahi duena erraz topatzea eta informazio argia" jaso asmoz.

ITXURA INPORTANTEA, EDUKIA ARE GEHIAGO

Hartzailea, edo pantaila aurrean dagoen erabiltzaile horrek duen perfilaren arabera egokitu nahi izan dute diseinu berria. Gurasoek, euskara ikasten ari direnek, dendariek, enpresek... "zuzenean dagokien atalean sartu eta hor topatuko dute arlo horietan egin edo eskaintzen dena" adierazi dute Buruntzaldeko udaletatik. Diseinua landu duen enpresatik ere, web orrialdearen itxura berrituak baino mamiak duen garrantzia nabarmentzen dute. "Edukia da web gunen honen altxorra. Hemen kontsultatu

daiteke eskualdeko euskara sailen material eta informazio guztia. Irakurlearentzat interesgarriak izan daitezkeen edukiak zintzilikatzen ditugu, hala nola eskualdeko euskara sailen egitasmo, kanpaina, lehiaketak...", adierazi dute Iametzatik.

INFORMAZIOA ESKURA

Lehen sakabanatua zegoen informazioa biltzeko lanak ere bideratu dituzte. Lehen "barreiatuak" zeuden sektorekako hiztegiak atal bakar batean jaso dituzte. Diru-laguntzen inguruko zehaztasunekin ere gauza bera egin dute. Aurretik "beraz, informazio bera eskuratu liteke atal ezberdinetatik sartuta".

BIZIA, DINAMIKOA

Buruntzaldeko udalek jendarean aurkeztu eta jada erabilgarri dagoen atari honetako eraberritze lanak egin dira. Baina ez guztiak, oraindik lanok ez dituzte amaitu. Atal batzuetako informazioa berrantolatzeke dute Buruntzaldeko udalek. Edukiaren zati nabarmen bat berritu dute, baina ildo beretik, Iametzako en esanetan, ataria aldi oro eguneratzen jarraituko dute. Web gunek bizia, dinamikoa izaten jarraituko du honen bestez.

Orain, sare sozialetan ere bai

Informazioa kontsultatzeko bakarrik ez, bisitariaren parte hartzea ere bultzatzen du atari eraberrituak. Lehiaketa eta egitasmoetan izena emateko aukera baitago egun. Norberak duen euskara maila ere ezagutu dezake, Automailaketa izeneko atalean. Edota sei udalerrietako kultur agendan sartu, eta zenbait ekitalditarako sarre-

ak erosteko aukera eskaintzen du gunek. Halere, web orriak islatzen duen berrikuntza nagusia, sare sozialetara eginiko jauzia da.

Aurrerapauso garrantzitsua Iametzako en esanetan, "Gaur egun sare sozialetan egotea oso beharrezkoa da. Hauei esker berriei zabalkunde gehiago ematea da helburua, eta bide

batez webguneko bisitak erakartzea". Hedabide lanak bakarrik ez, herritarrek parte hartu edota iritzia eman dezakete sare sozialen bidez. Honatx helbideak.

Web orriko helbidea: euskara.buruntzaldea.org

Facebook: Buruntzaldea-Euskaraz/217851421686563

Twitter: @BuruntzaldeaEus



Hau da helbidea: euskara.buruntzaldea.org

Harremanetarako



EU | ES

buruntzaldea euskaraz



BURUNTZALDEA »

ANDOAIN

ASTIGARRAGA

HERNANI

LASAITE-ORIA

URNIETA

USURBIL

Bilatu

Bilatu

KULTUR AGENDA 2013/09/02 | KULTUR ETXEO IKASTAROA

Hasiera

Albisteak

Kultur agenda

Egitasmoak

Zuretzat

Laguntzak

Dendetarako materialak

Euskara ikasi

Estekak

Ba al zenekien?

Euskaldun aktiboak

Multimedia



Errozotak



Zuk esan

ALBISTEAK

DENAK IKUSI

Martin Ugalde XVII. Ipuin Lehiaketan parte hartzeko epea zabalik da

2013/09/03 - Iruskinaldi: 0

[Andoain](#)

Etorkizuneko idazteen bila, Ipuin lehiaketa antolatzen du urtero Andoingo (Gipuzkoa) Udalak. Martin Ugalde idazlearen izena darama lehiaketa, eta 17 urte beteko ditu aurten. Parte-hartzaileek urriaren 11ean aurkeztu beharko dituzte lanak, Bastero Kulturgunean.

[Albiste osoa irakurri](#)**Kultur ikastaroak Hernanin euskaraz 2013-2014 ikasturterako**

2013/08/29 - Iruskinaldi: 0

[Hernani](#)

Helduei eta haurrei zuzendutako euskarazko kultur eskaintza zabala dago Hernanin. Gehienak ikasturte osokoak dira eta gutxi batzuk laburragoak.

[Albiste osoa irakurri](#)

Hiztegia

- > Arrainak
- > Diru kontuak euskaraz
- > Haragien izenak
- > Ileapaindegia
- > Ogia

Kultur agenda

Iraila 2013													
													1
2	3	4	5	6	7	8							
9	10	11	12	13	14	15							
16	17	18	19	20	21	22							
23	24	25	26	27	28	29							
30													

SARRERAK EROSI

DIRU-LAGUNTZAK

DENAK IKUSI

EUSKARA IKASTEKO

UDAKO IKASTAROA EGITEKO

ERROTULU KOMERTZIALAK JARTZEKO

WEB ORRIAK ETA PROGRAMA INFORMATIKOAK



EUSKALDUN AKTIBOAK

IKUSI

Aukera asko duzu inguruan euskaraz aritzeko, jokatzeko, bizitzeko, aktibo izateko. Gune honetan aukera horiek agerian jarri nahi ditugu, euskararekin aktibo jokatu nahi duenak informazioa eskueran izan dezan. Askotan aurkituko zinen euskarazko menua duen telefonoa erosi nahi eta ez jakin nondik hasi, edota gidabaimena ateratu nahi euskaraz eta ez jakin nondik abiatu. Euskaraz egin daitekeenaren informazio ahalik eta osatuena jarri nahi dugu hemen. Pixkanaka joango gara gunea osatzen eta gustu handiz jasoko ditugu zure aportazioak. Egin euskarazkoaren aukera! Sakatu ON!



ZURETZAT

DENAK IKUSI



GURASOAK



DENDARIAK



ENPRESARIAK



GAZTEAK



EGITASMOAK

DENAK IKUSI



MOTXIAN EBY MEZU LEHIAKETA 2013



GIDABAIMENA DOAN ATERA NAHI?



Dendetarako materialak



Zein da nire Euskara maila?



Euskaltegiak



Zure ekarpenak



buruntzaldea euskaraz

© 2013 Buruntzaldeko Euskara zerbitzuak
Harremanetarako | Irigarritasuna | Lege oharra
CSS | XHTML | WAI-A | Jabetza Interaktiboa



V. Topa Eszenika

FORMAKUNTZA IKASTAROEKIN ETA ZUZENKO IKUSKIZUNEKIN OSATU DA AURTENGO EDIZIOA

Datorren astean hasiko da Topa Eszenikaren bosgarren edizioa. Antzerkilari eta antzerkizaleen topaleku izango da Usurbilgo herria.

ADEL (Artedrama Euskal Laborategia) topaketak egin ziren Aulestian, Pazko Aste batean. ArteDramak antolatu zituen jardunaldi horietan izan zen Alex Tello, beste hainbatekin batera. "Hor sortu zen Topa Eszenika martxan jartzeko ideia. Ander Lipus aktoreak animatu gintuen horrelako zerbitzu antolatzaera".

Formakuntza lantzea da Topa Eszenikaren ezaugarrietako bat. Bestea, unean uneko ikuskizun artistikoak ezagutaraztea. "Hasieratik horrela izan da", argitu digu Alex Tellok. "Eta mantendu egin dugu ideia hori eta horrela izango da aurrerantzean ere".

Behar bati erantzuteko abiatu zen bi ezaugarri horiekin Topa Eszenika: "Txerrikiren garaian, formakuntza falta zitzagun. Formakuntza eta beste lanen ezagutza". Geroz-



Alex Tello (eskubitara) eta beste hainbat lagun, aurtengo edizioko kartela eskuarteetan.

tik, eszenarekin lotutako proposamen ezberdinen ispilua izan dira jardunaldi hauek. Baita ez ohiko proposamenen kasuan ere. "Topa Eszenikak aukera ematen du arriskua hartu duten lanak ekartzeko. Miren Gaztañagaren 'Stereo' obra, esate baterako", Tellok

azaldu digunez.

Lan handia eskatzen du horrelako gauza bat antolatzeak. Abiatzea baino zailagoa izaten da egin-

Alex Tello:
"Artistak eta zaleak elkarrekin egotea bilatzen dugu jardunaldi hauetan"

dako apostuari eustea. Eta Topa Eszenikaren kasuan, oinarri sendoak dituela esan daiteke.

AUTOFINANTZATUA

Hauxe izango da bosgarren edizioa. "Urteotan, fase ezberdinetatik igaro da. Aurtengo autofinantzatua izango da, adibidez". Lehen Txerrikik antolatzen zuen eta orain Alex Tellok sortu duen Antzerki Ekintza taldeak. "Babesa dut inguruan, Lasarten edota Donostian, ez nago bakarrik".

Idea zen asteburu batean ekintza denak batzea. "Eran-tzuna, ordea, oso ona izan da. Eta bi egunetik lau egunera luzatu dugu programa. Baina azken orduan, beste bi talde animatu dira eta guztira sei egun izango dira". Lasarte-Orian eta Añorgan egingo dira hainbat saio (urriaren lehen asteburuan). "Baina ikastaro denak Usurbilen eskainiko ditugu", zehaztu digu Tellok. Etorkizunean hiru herrien artean oreka bilatzea da asmoa.

Oso gustura etortzen dira artistak Topa Eszenikara

Potoxoen, Sutegi... Topa Eszenikarako eginak dauden erailkinak dirudite. "Oso gustura etortzen dira. Betidanik hori izan da azpimarratu dutena. Udalak ematen dituen erraztasunak ere kontuan hartu behar dira".

Artistek bere ahalegina egiten dute, sarrera truk datoz eta hori aitortu behar zaie. "Sarrerako diruarekin jokatzeko dugu eta era berean sarrerak oso merke jarri ditugu".

Segidan dator galdera: babes handiagoa zenuten duela bost urte? Hori galdetu diogu Alexi, baina hori ez omen da kontua. "Instituzioen babes-a ondo etortzen da baina urtarri-lean edo otsailean esan behar da irailan zer ekarri nahi duzun, eta horrek ez du errazten. Eta lau egu-neko topaketa batentzat, urte erdiz gestioak egiten ibiltzea ez da osasungarria, kar, kar... Horregatik jo dugu autofinantzaziora".

"Giro bat bilatzen dugu"

Kritikatik baino praktikotasunetik gehiago dute Alex Telloren azken hitz hauek. "Udalakaretoak utzi dizkigu, eta baliabideak".

Topo eta toparekin lotuta dago Topa Eszenika. Zentzu horretan, "artistak eta zaleak elkarrekin egotea bilatzen dugu, elkarrekin bazkaldu, elkarrekin ezagutu... Giro bat bilatzen dugu". Eta giro hori lortzeko herri egokia da Usurbilgoa.

Miren Gaztañaga, Ander Lipus eta Oier Guillan aktoreek ikastaroak eskainiko dituzte



"Publikoari gorroto" antzezlanarekin aritu da han eta hemen Ander Lipus (argazkia: Gaztezulo).
Topa Eszenikan ikastaro bat eskainiko du irailaren 28an, Potxoenean.

Nabarmentzekoa da eszenaren sektoreko aktoreek eta ikastaroen emaillek izan duten jarrera. Aurten go topaketa autofinantzatua izango da, sarrera truk arituko dira tailerretako gidariak edo emaillek, nola antzezlanetako aktoreak.

Alex Telloren esanetan, "puntako tailer gidariak datoz, eta irakaskuntzan badute eskarmentua. Miren Gaztañaga, Ander Lipus edota Oier Guillan maila jakin batekoak direla iruditzen zaigu eta eskainiko dituzten ikastaroak ere euren mailakoentzako izango direla, eta ez da horrela. Tailer denak irekiak daude baita esperientzia ez dutenei ere".

Irailak 25, asteazkena

■ 16:30-19:30 Tailerra Potxoenean: "Eszenarako idatzi, irudietatik abiatuta" (I). Bideratzailea: Oier Guillan. Matrikula: 5 euro.

Irailak 26, osteguna

■ 16:30-19:30 Tailerra Potxoenean: "Eszenarako idatzi, irudietatik abiatuta" (II): Bideratzailea: Oier Guillan. Matrikula: 5 euro.

Irailak 27, ostirala

■ 16:30-19:30 Tailerra Potxoenean: "Dantza garaikidea". Bideratzailea: Maider Oiartzabal. Matrikula: 5 euro.

Irailak 28, larunbata

■ 10:00-13:00 Tailerra Potxoenean: "Mugimenduak hitz bihurtzen direnean, hitza arnas, arnasa kolpe, kolpe gihar...". Bideratzailea: Miren Gaztañaga. Matrikula: 5 e.

nean: "Mugimenduak hitz bihurtzen direnean, hitza arnas, arnasa kolpe, kolpe gihar...". Bideratzailea: Miren Gaztañaga. Matrikula: 5 e.

■ 15:30-18:30 Tailerra Potxoenean: "Aktorearen tresnak". Bideratzailea: Ander Lipus. Matrikula: 5 euro.

Oharrak: tailerretako plazak mugatuak izango dira (12-16 artekoak).

Izenematea:
topaeszenik@gmail.com

Antolatzaileak: Antzerki Ekintza eta EHAZE.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Ikuskizun ugari V. Topa Eszenikan

Irailak 25, asteazkena

■ 20:15 Jon Plazaolaren **bakarriketa**, gaztetxean. 3 euro. 50 min. Bakarriketa komikoan onenetakoa. Hitz jario bizia du.

Irailak 26, osteguna

■ 20:15 Ikuskizuna Sutegin: "**Balitzen hioa (Begiradak)**". 5 euro. Puntako bertsolarien testuetan oinarritu dira. Korrika Kulturekin estreinatu zen.

Irailak 27, ostirala

■ 17:30 Ikuskizuna Sutegin: "**Maddi eta Anton**". Doan. Harrera familien gaia lantzen da. Gurasoentzat oso interesgarria.
■ 20:15 "**Arroxalik ere, amets egiten du**" (Aixaixa) Sutegin. Pieza labur bat, Saioa Royoren eskutik. Sarrera: 5 euro. Jarraian, "**Katiusken Erreinu**" (Bonbereneko antzerki taldea). Estreinaldia egin berri, bigarren saioa Topa Eszenikan.

Irailak 28, larunbata

■ 19:00 Sutegin "**Kukuka Dantzaz-Blai**". Dantza garaikidea. Sarrera, 5 euro. Ondoren, Sutegin bertan, "**Stereo**" Miren Gaztañagarekin. Obra berri-tzailea. Horrelako lanak ez dira ohikoak.
■ 22:15 Sutegin: "**Eskorbuto bat, berriz ere!**". Eskorbuto taldeari eginiko keinua, Jon Martinezen pieza laburra. Eta ondoren, Sutegin bertan, "**Zer duzu, Amy (Oh, My God!)**". Donostia Kulturaren beka irabazi zuen obra honek. Leire Ucha aktorea deskubritzeko aitzakia. 5 euro.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Okidegia-Gozotegia
LABE-GOXO

TXAPELDUN TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna Iurra 2, 943 11 82 53

Kanturako prest berriz

Datorren asteartera-ko finkatua dute ikasturteko lehen entsegu saioa, irailaren 24rako eta lau egun beranduago irtengo dira kantujiran, hilaren 28an. Bi deialdiokin abiatuko dute denboraldi berria, urtarrilean bost urte beteko dituen Usurbilgo Kantu Taldeko kideek. Abes-tera gerturatzeko gonbita luzatzen dute. "Entseguetan parte hartzea doakoa da. Usurbilgo Udalaren laguntza daukagu. Kantuan aritu nahi duen guztiak dauka Kantu Taldean parte hartzeko aukera. Entseguak asteartero izaten dira", berri eman dute.

Udan atsedean hartuta bueltan datozela iragarri dute. Bosgarren urteurrena ate joka duten honetan, kantuzaleen taldetik adierazi dutenez, 2009. urte hasieran martxan jarri zutenetik, "230 bat kantubaditugu gure kantutegian. Kantuak kantatzen, ikasten eta plazaratzen saiatu gara. Kanean hainbat Kantujira, Kantuafariak, Lagunekin Kantari ekimenak, Bertso-Kantujirak eta inguruko jaietan parte hartuz, kantatzeko ohitura berreskuratzen ibili gara eta



Lehen entsegu asteartean egingo dute eta lehen saioa irailaren 28an.

halaxe segitzea da gure nahia".

"KANTUA, GURE LEHEN KOMUNIKAZIOA"

Kantu Taldeak NOAUA!r aigorritako idatzian gaineratu dutenez, "Euskal Herrian abesteko ohitura handia izan da eta gure kantuetan era guztietako kantak aurkitu ditzakegu: maitasunezkoak, politikari edo heriotzari buruzkoak, gerra nahiz umorezkoak, bertso zaharrei eta ohiturei buruzkoak, sehaska kantak, eta abar. Euskal nortasuna eta kultura nola ulertu kanturik gabe! Euskal Herri txiki honetan, 350 abesbatza inguru badaude. Bada zer-

bait. Txiki txikitatik hasita, plazetan, tabernetan, familiar, elizan, beti izan dugu kantatzeko ohitura. Sehaskatik (sabeletik) hasita kantatzen diegu gure seme-alabei. Kantua da gure lehenengo komunikazioa. Kultura transmisio hau aurrera ere halaxe izan dadin ahalegintzen ari da Usurbilgo Euskal Kantu Taldea".

Irailak 24, asteartea

18:30-19:30 Entsegu saioa Udarregi Ikastolan, Susi Elosegi musika irakaslearekin.

Irailak 28, larunbata

19:00 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Akatsak zuzentzen

Mendekotasuna dutenen zaintza-ikastaroa eta emakumeentzako ahalduntze saio berriak iragarri genituen aurreko astean, NOAUA! aldizkarian.

Izena emateko telefono zenbakia ordea, oker eman genuen. Gizarte Zerbitzuetako eta Parekidetasun Saileko telefono zenbakia, zuzena, hauexa da: 943 377 110 da. Barka eragozpenak.

Truke Eguna Txokoalden

Salerosketak eta diruak lekuri ez duten azoka ospatuko da igandean; Truke Plaza, Txokoalden. Erroizpe elkarte aurrea, truke gunean bihurtuko da beste behin.

Goizeko 11:00etan hasi eta bazkal ordura arte luzatuko da azoka. Trukalariak taldekoek antolaturiko ekimen hau otordu baten bueltan amaituko da.

Aginagako Eliza Zaharra

Irailaren 28an inauguratuko dute. 11:30ean irekiera, 12:00etan egindako lanaren erakusketa eta 14:00etan bazkari herrikoia. Txartelak Aitzagan eta Aginagako Arrate Zahar Egoitzan eta Sekañan.



Bi ibilbide aukeran, eta sari potoloak Baxurde Krosean

Irteera gunea berriz ere betiko lekuan kokatuta, bi ibilbide aukeran eta titularrean jaso bezala, helmugan sari potoloak partaideen zain. Osagarri eta berrikuntzokindator igandean ospatuko den VI. Baxurde Krose. Hitzordua, goizeko 11:00etan, Mikel Laboa plazan.

Lasterketa abiatu eta amaiteko gunea ohiko tokira itzuliko da aurtun. Iaz Mikel Laboa plazako lanen ondorioz, Kiroldegira lekuz aldatu behar izan baitzuten antolatzaileak. Aipatu moduan, jatorrizko gunera bueltatuta, aurtun 5,2 eta 10,75 kilometro luze dituzten ibilbideen artean hautatu ahal izango dute lasterkariak. Izen emateko azken egunak dira hauek. Apuntatzeko, kirolprobak.com atarian sartu edo Oiarde Kiroldegira jo. 10 euro aurrez, eta lasterketa hasi aurreko tarteetan, 15 euro. Gogoan izan, asko jota 350 lasterkarientzako lekua dagoela aurtengo edizioan. Helduenek bezala, haur eta gaztetxoentzako ekimena ere prestatu dute antolatzaileak; Baxurde Txiki lasterketa.

Opari ederren zozketa

Helduen lasterketara itzulita, izena ematearen baitan, aseguruaz izango du lasterkariak. Probaren erdian ur-hornidura, eta amaieran hamaiketako. Baita opariak ere, helmugara helduko diren lehen hiru gizon eta emakumezkoek. Parte hartzaile guztientzat, poltsa serigrafiatua, sagardo botila 1, EtxeOndo galtzerdiak eta Fullgas etxeko gela. Gainera, opari ederrok zozketatuko dira: Saltxipi jatetxean bi lagunentzat otordua, Atxega jatetxean bi lagunentzat otordua, Araeta jatetxean bi lagunentzat otordua, Olarrondo jatetxean bi lagunentzat otordua, Patri jatetxean bi lagunentzat otordua, Artzabal jatetxean bi lagunentzat otordua, Viveros Bruño-k eskainitako 2 marisko otar, Arrospide banaketak eskainitako kutixi lotea, Kirolari profesionalak sinaturiko arropa.

Eskubaloia, ospakizunetan

Usurbil Kirol Elkartea mende Erdiko ospakizunetan da astelehen arratsaldeaz geroztik. Eguraldiak askorik lagundu ez arren, iragarrita zuten txupinazo hirukoitzarekin eman zioten hasiera igandera arte luzatuko diren ekitaldiei. Kirol Elkartearen iragana eta oraina lotzen dituzten bilgunek erreferentziatzeko hiru lagunek piztu zuten, 50. urtemugako ospakizunei ekiteko sutzia. Hiru gune esanguratsuetan jaurti ziren txupinazoak; frontoian, Kirol Elkartearen sortzailetariko batek Txema Valle jok; Santuenean, Esteban Iribar arduratu zen txupinazoaz, eta Kiroldegian, egungo elkarteak lehendakari Jesus Beloki.

Erakusketako inaugurazioa, jendetsua

Txupinazo hirukoitzaren ostean, egunotarako iragarri diren eskubaloia partidetak lehena jokatu zen frontoian. Eskola Kirolean dabilzanek parte hartu zuten lagun arteko hitzordu honetan. Gehiago izango dira egunotan. Eta partida hasi eta gutxira inauguratu zen, egunotan Sutegiko aretoan ikusgai dagoen argazki erakusketa. Ireki baino lehen, areto atarian jende ilara zegoen. Ireki ostean, aretoa jendez bete zen. Usurbil Kirol Elkartearen 50. urteotako ibilbidea iruditan oroitzen bertaratuak denak. Hainbat eta hainbat talderen argazki daude Sutegin, kronologikoki hamarkadaka ordenatuak. Mende erdi honetan irabazitako hainbat kopa ere ikusgai daude.

Herri bazkaria igandean

Igandera arte izango da bestelako hitzordurik ere. Ostegunean, Usurbil Kirol Elkartearen 50. urteotako ibilbidea jasotzen duen liburua aurkeztuko dute, 19:00etan Potxoenean. Eta astea borobiltzeko, igandean herri bazkaria antolatu dute frontoian. Otordurako txartelak salgai egongo dira ostegunera arte, Bordatxon eta Aitzagan. 20 euro ordaindu beharko dute helduek, 12 euro 13 urte arteko haurrek. Menua, dastatzeko modukoa: Eus-



Jendetza bildu zen erakusketaren inaugurazioan.

ko Label tomate entsalada; otarrainxka egosiak; Eusko Label hegaltzea parrilan; txerri kostila parrilan; limoizko sorbetea cavarekin; kafea, patxarana eta likoreak; edariak; txotxeko sagardoa, Errioxako ardoa eta ura.

Bada ordea, herri bazkarirako izena emateko beste bide bat ere. Ordainketak kontu korrante zenbaki hauetakoren batean egin eta bazkaritan, ordainagiria aurkeztea:

BBVA: 0182 6043 27 0201505790.

Rural Kutxa: 3008 0259 11 2038715328.

Kutxabank: 2095 5069 02 1061099122.

Lagun arteko neurketak asteburuan

Denboraldia hasi aurretik, eta 50. urteurreneko ospakizunen baitan, lagun arteko partidak jokatu dituzte senior mailan lehian dabilzan hiru taldeek. Larunbat arratsaldeko 17:00etatik aurrera izango da, Oiardo Kiroldegian. 2. territorial mutlak eta senior neskak izango dira jokatzeko lehenak, Usurbil Kirol Elkartearen aurka. Eta amaitzeko, 2. nazional mailakoen txanda izango da. 20:00etan hasita, 50. urte bete dituen beste elkarte bat izango dute aurkari nagusi; Trapagaran. Biharamunean, igandean, belaunaldi desberdinetako beteranoak egun batez, eskubaloian jokatzeko aukera izango da berriz. Honatx, 50. urteurreneko ospakizunen egitaraua:

Irailaren 21 arte

Argazki erakusketa Sutegin:

Ostiralera arte: 19:00-21:00. Larunbatean: 12:00-14:00/18:00-21:00.

Irailak 18, asteazkena

17:30 Kadete/jubenil neskak Santuenean.

18:30 Kadete/jubenil mutlak Santuenean.

Irailak 19, osteguna

19:00 Liburuaren aurkezpena Potxoenean.

Irailak 20, ostirala

18:30 Kadete/jubenil mutlak frontoian.

19:30 Kadete/jubenil neskak frontoian.

Irailak 21, larunbata

11:00 Eskola kiroleko eskubaloia neurketa frontoian.

12:00 Eskola kiroleko eskubaloia neurketa frontoian.

17:00 2. territorialeko taldea Oiardo Kiroldegian.

18:30 Senior neskak Oiardo Kiroldegian.

20:00 2. nazionaleko taldea Oiardo Kiroldegian.

Irailak 22, igandea

10:00 Beteranoen neurketak Oiardo Kiroldegian.

11:00 Argazki erakusketa eta bideo emanaldia egun osoan zehar.

12:00 Elkarteko hildakoen omenezko meza.

14:30 Herri-bazkaria frontoian.

Oharra: urteurreneko kamisetak eta liburua salgai. Antolatzailea: Usurbil Kirol Elkartea.

Buruntzazpi, bidean berriz

Hasiberri, alebin, infantil, kadete eta jubeneilei zuzenduriko eskaintza prestatu dute txirrindulari eskolan. Zikloturista edo lehiaketarako lizentzia federatua eskuratzeko aukera ere emango dute. Izena emateko, Oiardo Kiroldegiko gihartze gelara gerturatu. Idatzi bestela, buruntzazpi@gmail.com helbidera.

Futbol Eskola, izen ematea

LH 3,4 eta 5 mailetan ikasten ari direnek irailaren 20an dute 18:00-19:30 artean Hareneko bulegora gerturatu eta izena emateko azken eguna. Denboraldi osorako prezioa, 150 euro. Futbol Eskolan parte hartzeko, Eskola Kiroleko, Kirolaz Josta edo Futbol-Eskubaloian izena emana eduki beharko du gazte-txoak. Alebin federatu mutilek ere aukera dute ostiral honetan bertan izena emateko.

Izu mendiko gailurrean



Artikutza aldean ibili ziren aurreko astean Andatza mendi taldekoak.

ETXEBIZITZA

Salgai

Baxua salgai Errekabizik (61 m2) + pisu azpiko trastelekua (61 m2). 2008ko obra berria. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komun. Aire egokitua, bero-gailua, beira bikoitzeko leihoak... oso funtzionala. Bizitzaren jartzeko. 649 895 858

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berrituko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komun, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komun, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Etxebizitza eguzkitsua alokairuan Etxe-Aldian. Bi gela, bainugela, sukalde handia eta egongela tximenearekin. 620565731.

Kaxkoan pisu bat alokatzen da altzariekin, 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta trasteroarekin. 618 860 270

3 gelako etxea alokagai erdialde-

an 700€ gehi gastoa. Gelara ere alokatuko genduke. 630713583

Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, Txaramuntan. 4 gela, sala, bi komun eta sukaldea. Abala eskatzen da. Tlf. 688 675 856

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komun, ganbara eta igogailuarekin. 943371495-695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzeritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil 622 856 181.

MOTORRA

salmenta,

garajeak

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia alokatzen da 22 m2-koa San Esteban kalean (Etxealdia). Arratsaldez deitu 943373185

Garaje itxita salgai. 20 m karra-tuak. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.7 81 cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4 Tdi 80 zaldi. 58.500 km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailea eta beti garajea.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzailer moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularren ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Orduetegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zaindiko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaitxo dauden pertsonen erizaintza zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularren emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakasuntza gradua bukatze eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularren ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakas-

kuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zaindiko nituzke goizein arratsalde. Irakasuntzan diplomaturia. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketaren. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketaren eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria pres-tatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularren ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakasuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularren emateko. 636601644

Zorionak Enara!

Iritsi da irailaren 17a eta denok ospatzeko bizkotxo egiten hasi gustora jango dugula muxuak.



Heriotzak

Aranzazu Arroyo Alberdi

85 urterekin hil zen irailaren 12an Zubietan



Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaia.com

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzetan laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldetan lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adinako pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, internan moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Zubietan goizetan etxeko lanak

egiteko egun erdiko lana eskaintzen da. 695 783 202 (arratsaldetan deitu)

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarraigana, haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egun osoan, astelehenetik ostiralera. 943 550 550

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

BESTELAKOAK

Pedalik gabeko bizikleta bat utzi nuen frontoian, ostiralean edo larunbatean. Decathlon-ekoa, kolore urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

8 urteko neska baten Oiarzun markakomendiko bizikleta falta da. More, arrosa, beltz eta txuri kolorekoa. Fuxia koloredun kaskoarekin. Aurkitzen baduzu, deitu: 635 755 666

Kolore more eta grisduen nesken-tzakobizikleta berria (Coluer) lapurtu ziguten abuztuaren 31n arratsaldean, tren geltoki inguruan. Aurkitzen baduzu, deitu 689 769 282

Aginagako artoa salgai 687 706363

Teniseko raketa bat aurkitu da Erreka Txiki parkean. 943 371 044.

Usurbilgo baserri batean hazitako oilasko eta untxiak saltzen ditugu. 652 725 022.

Botilei tapoiak jartzeko enkortxa-

dora bat salgai, 100 euro. Asadore elektriko bat, 100 euro. 943361235

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Erromeri talde baterako, tronpetak eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, esekigailuak, haurren kotxe kapotak, bi kanpin denda handi, bizikleta estatikoa, ispi-lua, liburuak, haur jolasak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: goizez, 10:15-13:00 artean; arratsaldean, 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
NOAUA! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak irailak 19-irailak 29

Osteguna 19 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Ostirala 20 ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

Larunbata 21 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Igandea 22 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Astelehena 23 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Asteartea 24 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 25 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 26 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Ostirala 27 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Larunbata 28 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Igandea 29 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda iraila

20 ostirala

- **Usurbil KE urteurren partidak** (15. or).
- **Santueneako festak** (azpian info gehiago).

21 larunbata

- **Usurbil KE urteurren partidak** (15. or).
- **Bertso afari musikatua Zubietan** 21:00etan Barazarren.
- **Santueneako festak** (azpian info gehiago).

22 igandea

- **Baxurde Krosa.** 11:00etan irteera eta helmuga, Mikel Laboa plazan.
- **Truke Eguna.** 11:00-14:00 Txokoalden.
- **Usurbil KE urteurren ospakizunak** (15. or).
- **Santueneako festak** (azpian info gehiago).

Parrandan murgiltzeko prest dira Santuenean

EH Sukarra taldekoen kontzertua nabarmen-tzekoen artean dela ekingo diete auzoko festei, ostiral arratsaldeko 17:00etan. Gogozan izan, "telonero" lanak Artobixar Usurbilgo talde gazteak egingo dituela eta goizaldera arte gero, Joxpakoekin erromeria izango dela.

Hori guztia jaietako lehen gauean. Jai Batzordekoek herri afari eta bazkari bana ere antolatutuz astebururako. Txartelak Santueneako zaharren egoitzan, Ibai Ondo Elkartearen eta Santuenea Elkartearen erosi beharko dira aurrez.

Jai egitarauko beste oinarria, haurrak izango dira. Joko, puzgarri, buruhandi edota Hipo eta Tomax pailazoaren emanaldiaz gozatu ahalko dute. Gurasoei batera, haurrak izan ziren hain zuzen Markeliñe taldekoek eskainitako "Zoo-zoom" ikuskizuneko protagonistak iragan ostiralean Santuenean.

Irailak 20, ostirala

- 17:00 Txupinazoa txosna aurrean eta txokolatada Tragoxkan. Ondoren globo gerra.
- 18:30 Buruhandiak eta txaranga.
- 19:00 Sardina jana.
- 23:00 Kontzertuak: Artobixar, EH Sukarra eta Joxpa.

Irailak 21, larunbata

- 11:00 Haur jolasak eta pintura lehiaketa.
- 13:00 Buruhandiak.



Ostiral honetan Artobixar, EH Sukarra (argazkian) eta Joxpa arituko dira.

- 14:00 Haur bazkaria (Norberak bere bazkaria ekarri eta edariak eta postrea bertan banatuko dira).
- 16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 izen ematea).
- 16:00 Haurrentzako puzgarriak.
- 17:30 Txokolatada Zaharren Egoitzan.
- 19:00 Buruhandiak.
- 20:30 Kantu afaria Josune Aranbururekin.
- 00:00 DJ Van.

Irailak 22, igandea

- 11:00 Toka txapelketa.
- 12:00 Hamaiketako txosnan.
- 14:00 Herri bazkaria.
- 18:00 Hipo eta Tomax pailazoak. Ondoren buruhandiak.
- 19:30 Piper dastaketa.
- 21:00 Festen amaierako traka.

Datozenak

Zortzi hamarkadaz bizi izan direnen omenez

Aurten 80 urte betetzera heldu diren herri-tarrak omenduko ditu urriaren 6an, Gure Pakea Elkarteak. Hil direnen aldeko meza batekin lehenbizi eta Atxega jatetxean ospatuko den bazkari batekin gero. Urteroko hitzordu honetara, omenduekin batera, euren senide eta lagunek ere joan ahal izango dute. Bazkaritarako txartela aurrez erosi behar da. Irailaren 27a baino lehen, Gure Pakea Elkarteak Artzabalen duen bulegoan. Txartelaren prezioa, 35 eurokoa da. Ordainketak kontu korrante zenbakiotan egin daitezke: Euskadiko kutxa: 3035 0140 31 1401018416 Kutxabank: 2095 5069 04 1060905378.

Urriak 6, igandea

12:00 Meza.
14:00 Bazkaria Atxega jatetxean.
Antolatzailea: Gure Pakea Elkarte.

Kontserba ikastaroa

Ikasturte berrirako ikastaro hau antolatu du Usurbiltzenek; irailaren 28an, 10:30etan Agerialdeko jangelan. Ikastaroan izen emateko epea, irailaren 23tik 27koa izango da. Apuntatzeko, deitu 699 472 020 telefono zenbakira (Josu) edo emaila idatzi usurbiltzen@gmail.com helbidera. 10 euro ordaindu beharko dira. Ikasle eta langabetuek, borondatea.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ARTZABAL
Baserria - Jatetxea
Puntapax 8, Usurbil
943 36 94 39

EGUNEKO MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
TOSTAK
MENU BEREZIAK

aek

Euskara praktikoa



usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia, 45 behea.
20170 USURBIL

607 609 379

usurbil@aek.org



www.muntteri.blogspot.com.es

*Leheuego eguuetik hitz egingo duzu,
erabilerau oinarritutako metodologiari esker.*



Eskolak



Mintza
praktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio
planak



Titulu
homologatuak

aek

Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre

eman izena

www.aek.org
902 362 294





Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

663 08 76 71
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L

teilatua eta fatxadak

943 37 38 79
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldean), LASARTE-ORIA

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra
943 240 176 eta 649 435 470

Oztaran auzoa 33, URNIETA



ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza · segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3. esk

JOSEBA
ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza

Jose txo Ikatzeta

687 951 225



**ESKAIOLA
PLADUR**

Joxean Elorza -USURBIL
699426042



Antonio
URRUZOLA
AROTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE

Balsamendi Arregi, Imanol
AROTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA



izagirrelektrizitatea@hotmail.com

izagirre
Elektrizitatea

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Goiz Argi etxea nº 37
Kale Zahar Auzoa

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL